# BERTSO PAPERAK

"JOXE LEGARRETA" SARIA 1997

Julian Albistur

## EUSKERAZ BIZI ETA GAZTELERAZ HEZI
## TORTURA HURA EZ GENUEN MEREZI

1 Argazki zahar baten bila,
igaro dut otsaila;
armairu eta kajoi miatzen
naiz oso abila.
Bizitzaren maratila
eta oroitzapen pila,
argazki hortan jasoak daude
ta ager dadila!

2 Kartazalean itxia,
hain dokumentu bitxia;
auskalo noiztik zegoen hantxe
gordeta utzia.
Badu zer erakutsia,
ez baitzegoen hautsia;
gaur ikusita, egia esan,
dirudi kurtsia.

3 Berrogei urtetik gora...
azkar pasa da denbora!
Garai hartako gauza ugari
datorkit gogora.
Petatxuzko alkandora;
anaiaren kazadora...
Gauzak aldatu dira ordutik
gaurko haurtzarora!

4 Gure lehenengo eskola,
ez zen izan ikastola;
garai haietan ez zutelako
onartzen inola.
Heziketa espainola,
eta esango dut nola:
kanta araziz "Cara al sol", ta ez
"Gernikako Arbola"

5 Kanpokaldean bandera,
gorri-horia gainera.
Gela barruan argazki zaharra:
zen Franco berbera.
Mintzatzeko, gaztelera,
bakarra gure aukera.
Ama hizkuntza kontutan hartuz
heziak ez gera.

6 Gogo onez ezin ekin,
orduan, sei urterekin:
han kastilanoz hitz egin behar
nahiz ezer ez jakin!
Hizkuntza arrotzarekin,
lortzeko nahiko etekin,
"A" ereduan hezi gintuzten,
makil motzarekin.

7 Hizkuntzaren eraginez,
sarritan buruko minez.
Dotrinan ongi moldatzen ginen
euskeraz eginez.
Errosaioa latinez,
hitzak ulertu ezinez.
Hiru hizkuntza erabili ta,
bat ongi jakin ez!

8 Eskolak, gela bakarra;
ikasleak barra-barra:
batek mukia zintzilik eta
besteak puzkarra...
Maistra genuen zakarra:
matrailean hatzaparra;
diktaduraren pedagogia:
umeen negarra.

9 Berrogeita hemeretzi;
ia ezin da sinetsi.
Hogeita hamaika mutilak eta
neskak ho(ge)ita zortzi.
Nola zitekeen onetsi?
Pedagogoak ez etsi,
irakaskuntza hobetzekotan
bihar edo etzi.

10 Ereñozu eta Latxe;
Fagollaga-koak, hantxe.
Lastaola ta Epele-tarrak
gogoan oraintxe.
Ikasteko "a", "be', "ce", "che",
"de", "e" , "efe", "ge", "ta', 'hache"....
Zailtasun asko genituen guk
mekaguen la letxe!

11 Argazkia da lekuko
eta nik ez dut salduko;
ttikitan jasan genuenari
ezin egin uko.
Epele-Ereñozuko,
denek dute sinestuko:
hor galerazi zuten hizkuntza,
ez dugu ahaztuko.

12 Herri zahar honen kultura,
hizkuntza eta ohitura,
galtzeko aina indartsu ez zen,
izan diktadura.
Genozidio saio hura,
berriz nik ez nuke gura
eta ez bedi inoiz itzuli
gure ingurura!